


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2003KO ABENDUA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,1 igo ziren 2003ko abenduan

2003an eraikuntzaren kostuek %2,4ko gehikuntza izan dute 2002ko abendutik.

2003ko abenduan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,1 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta abendurako urte arteko tasa %2,4ra iritsi zen, EUSTATen datuen arabera. Beraz, 2003 osoko tasak %2,4ko igoera izan zuen 2002ko abenduaren aldean.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1995-2003



Iturria: EUSTAT

Urte arteko aldian (2003ko abendua, 2002ko abenduaren gainean), lan-eskuaren kostua %5,8 handitu da eta lehengaien kostuak, berriz, % 0,1.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan dute: aurreko hilaren aldean %0,2 igo da Eraikuntza eta Obra Zibileko lehengaien kostuek eutsi egin diote beren egoerari. Azpisektore horien urte arteko bilakaerari begiratuz gero, zeinu desberdineko ibilbideak izan dituztela ikusiko dugu: Eraikuntzako kostuak %0,1 jaitsi dira, eta obra zibilekoak, aldiz, %0,6 igo.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2003 osoan, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak 2002ko abenduaren aldean: *karea, igeltsua eta eskaiola* (%7,1), *garbitasuneko eta gorputz-garbitasuneko materialak* (%6,0), *burdina eta altzairua* (%5,0), *makineria-osagarriak* (%4,4) eta *zementu artifiziala* (%4,1). Aitzitik, urteko prezioetan (2003ko abendua, 2002ko abenduaren gainean), murrizketak izan dituzte *zeramika-produktuak* (%-17,9), *asfaltozko produktuak* (%-6,6), *petroliotik eratorritako produktuak* (%-4,8), *energia elektrikoa* (%-3,9) eta *leherkariak eta gasak* (%-3,6) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2003KO ABENDUA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	122,3	0,1	2,4	2,4	
ERAIKINAK	122,6	0,1	2,3	2,3	
OBRA ZIBILA	121,8	0,0	2,7	2,7	
LEHENGAIEN KOSTUA	114,1	0,1	0,1	0,1	
ERAIKINAK	114,3	0,2	-0,1	-0,1	
OBRA ZIBILA	113,3	0,0	0,6	0,6	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	135,9	0,0	5,8	5,8	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxe: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tel.: +34-945 01 75 05. Faxe: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es